

TOKIKOM

2010eko otsaila | 90. zenbakia

ai!r!

aldizkaria



Geure taldea da

PAUL NICHOLSON AIKOR! ALDIZKARIAREN 8. URTEURRENA DERIOKO OSTALARIAK



LAPIKO

eraikuntza- eta dekorazio-materiala

barruko
lanak




*Etxea berritu nahi duzu?
Etorri eta hamaika
aukera ezagutu...*




ESKAKINTZA **BEREZIAK** urte osoan zehar

Mer**k**ataritza-guneetan baino **PREZIO HOBEAK**

Ahol**k**ularitza eta material**ak** jartzea



kanpoko
lanak



T: 94 455 64 01

T-Faxa: 94 455 63 98

Garaioltza auzoa, 67-LEZAMA

alm-lapiko@hotmail.com



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Ama-
goia Guezuraga, Pospolin, eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Jon Goikouria, Jon Ander Rola, Ines Serrano, Susana Rodriguez, Fernando Larrondo, Oihana Astobieta, IZAE argazki taldea, Belen Gana, Juan Luis Goikoetxea eta Juanxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: AIKOR!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen edo-
ta eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURAREN BARRIA


ELKARTUAK / ELKARTUAK / ELKARTUAK




ELKARTUAK / ELKARTUAK / ELKARTUAK




diruz lagundutako aldizkaria



12 Paul Nicholson




22 AIKOR! aldizkariaren 8. urteurrena



29 Derioko Ostalaritza elkarte

- 4 Eritxia**
- 5 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Lezamako baserria**
- 12 Gurean izan da... Paul Nicholson**
- 14 Gaztea eta... Ixone Urrutikoetxea**
- 16 Astelehen beltza**
- 18 Euskaltel-Euskadi txirrindularitza taldea**
- 22 AIKOR! aldizkariaren 8. urteurrena**
- 26 Igor Petralanda, helikoptero-gidaria**
- 28 Matrikulazio-kanpaina, Txorierrin**
- 30 Elkartek/Taldeak... Derioko ostalariak**
- 32 Osasuna... Arantza Amondarian, ginekologoa**
- 34 Teknologia... Internet eta adingabetuak**
- 35 Aikorrizketan... Kateatik Otatzara da Txorierrri**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**





JON ANDER ROLA
(Irakaslea)

Hitz honen berri *Berria* egunkarian izan dut duela gutxi. Hitz idazle batek erabili zuen etorkin pobreen aurkako jarrera definitzeko. Izan ere, jarrera horrek hitz bat behar zuen, gure gizartean gero eta hedatuago baitago. Kalean ez da Europako zein Iparramerikako etorkin aberatsen aurkako adierazpenik entzuten, nahiz eta euren azalaren kolorea gurea bezain zuria ez izan. Txiroen aurkakoak, berriz, bai.

Etorkinek lana kentzen digutela askotan entzun dut aspaldi honetan. Baina argudio hori entzun dudun guztietan ez ziren Frantzia edo Alemaniatik etorritako ingeniari edo abokatuei buruz ari; etorkin txiroei buruz baino, zerbitzari edo basoan lan egiten dutenei buruz. Eta, egia esan, nik ez dut ezagutzen Euskal Herriatik kanpora lanik ezagatik joan behar izan den euskal zerbitzaririk. Baina ingeniariak, ordea, bai.

Bada jende asko ere bertokoei diru-laguntzak lapurtzen dizkigutela esaten dutenak. Nik dakidala, erakunde publikoek bakoitzaren egoera sozio-ekonomikoaren arabera banatzen dituzte diru-laguntzak; hau da, bakoitzaren diru-sarrerak, patrimonioa, familiako kideen kopurua kontuan hartuta. Bihar bertan etorkin guztiak euren herrira itzuliko balira, ez dut uste diru-laguntzak banatzeko parametroak aldatuko liratekeenik. Gainera, diru-laguntzak engainuezt lortzen dituztela ere esaten da.

Aporofobia


Baina, hori bai, Ogasuna engainatzen duena gutako bat denean, hori zoriondu egingen dugu. Eta enpresaria izanez gero, oso trebetzat hartzen dugu.

Segurtasuna erabiltzen den beste argudio bat da. Duela urte batzuk gertatutako pasadizo bat etorri zait gogora. Martin Fizek eta Diego Garciak Atletismo Europako Txapelketan, hurrenez hurren, urrea eta zilarra irabazi zuten egun berean enpresari euskaldun bat harrapatu zuten Alemanian, uranio-trafikoan ari zela. Hurrengo egunean albiste biak argitaratu zituzten Madrilgo egunkari bateko lehenengo orrialdean. Albiste batean, trafikoan ibilitako enpresaria euskalduna zela aipatu zuten; eta bestean, dominak lortu zituzten korrikalariak espainolak zirela. Ez dakit ez ote dugun egingen gurekin askotan egin duten berbera. Nik lapurreta batzuk jasan ditut nire bizitzan, eta larriena bertoko batek egindakoa izan da.

Musikaz blai, baina ito gabe

Edonorengan du eragina musikak, adinik ez baitu; koloreek bezala. Gaztaroan musikaren atarian azaltzen gara, marka zuriko produktuak bagina. Denborak aurrera egin ahala, eguzkia hartzen dugun era bertsuan, astiro-astiro, musikaren izpiez hasten gara kolorea hartzen. Definitzen hasten gara. Txorierr kolorez blai dago. Derioko musika lokala ireki zenetik gero eta gehiago dira bertara hurbiltzen diren gazteak, euren sormena musikaren bidez adieraztera. Eta hori harro egoteko modukoa da.

Lokala zoragarria da, eta erabat ziur nago bertan, etorkizunean oihartzuna



JON GOIKOURIA
(Kazetaria)

izango duten taldeak jaioko direla. Hala ere, badago tokiko legeei jaramonik egingen ez diona ere. Eta era horretako jendea da hain zuzen ere, bertako materiala hondatzen duena, ormak goitik behera oinatzetaz zikintzen duena eta musika ekipoa behar ez bezala tratatzen duena. Lokala gero eta kalte gehiago ari da jasaten astakirten puska batzuei esker.

Musikaz koloreztatzea denon eskuetan dago, lokala eta bertako materialak egokitasunez tratatzea bezala. Gazte guztiok dugu Txorierr musikaz bustitze-ko eskubide berbera, baina ez itotzeko. Zaindu dezagun beraz, gurea den hori!





Lezama Bizirik Elkarteen Erregistroan inskribatzeko eskaerari erantzutea aholkatu dio Arartekoak Udalari

Lezama Bizirik elkarteak Eusko Jaurilaritzako Elkarteen Erregistro Ofizialean dago erregistratuta. Hala ere, Arartekoari jakinarazi dioten bezala, orain urte batzuk egin zuten Lezamako Udal Elkarteen Erregistroan izena emateko eskaera, baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Egoerak kalte handiak dakartzio elkarteari, azaldu dutenaren arabera, ezin direlako herriko beste taldeek dituzten abantailak baliatu: besteak beste, udal lokalak erabiltzea, udal webgunean agertzea edo dirulaguntzak jasotzea.

Arartekoak Udalari eskatu dio argitu dezala zer arrazoi dagoen Lezama Bizirik elkartearen udal erregistroan ez inskribatzeko, baina, txosten batean adierazitakoaren arabera, ez du azalpen zehatzik jaso. Udalak, berriz, jakinarazi dio dirulaguntzak kultura eta kirol arloko jarduerak egiteko ematen dituela, eta udal webgunean kulturari eta kirolari lotutako elkarteak baino ez direla agertzen, "eta ez gastronomia edo politika arloetakoak edo auzokideenak".

Elkarteei buruzko udal araudia

aztertu ostean, araudi horrek "Eusko Jaurilaritzako Elkarteen Erregistroan inskribatutako elkarte guztiak hartzen ditu barne, eta kulturari edo kirolari lotutako helburuak dituztenen parean jartzen ditu" ondorioztatu du Arartekoak. "Ez dago arrazoirik elkarte hau udal erregistroan ez sartzeko".

Elkarteak Udal Elkarteen Erregistroan sartzeko egin dion eskaerari buruz ebazpena ematea eta ebazpen hura adieraztea gomendatu dio Arartekoak Udalari. "Eta, hala badagokio, udal baliabideak erabiltzeko sarbidea erraztu diezaiola, baliabideok beste elkarteek erabiltzen dituzten baldintza berdinetan erabili ahal izateko".

Elkartearen eguna

Beste alde batetik, martxoaren 13an, zapatuan, Lezama Bizirik Eguna egingo da, elkarteak antolatuta. Goizean herriko lau ibilbide seinaleztatuko dute zutoinez, eta eguerdian herri-bazkaria egingo dute Goitioltzako Txokoran. Ostean, elkartearen urteko batzarra izango da.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunetan hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu behar duzue. Laburtu behar izan ezker, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Besarkada bat

Besarkada bat ematen denean gauza asko eta ezberdinak adieraz daitezke, hura eman edo jasotzen duen pertsonaren arabera, sentimendu edota egoeraren arabera. Kartzelan, adibidez, sartu berri den lagunari ematen zaion besarkada dago; kartzelaz aldatzea dagoenean, agurra moduan ematen dena; eta bisitan datozenei ematen zaiena. Besarkada horiek guztiak sentimenduz beteta daude. Batzuetan, pozaz betetako besarkadak dira; beste batzuetan, tristuraz.

Estatu espainoleko kartzeletan, kristal eta barroteen artean ikusi behar dituzu bisitan datozen lagunak. Ezin dugu elkar besarkatu. Eta, gainera, duela hila-bete batzuetatik hona, oztopoak ari dira jartzen, bis a bisak egiteko. Senideak miatzen dituzte, eta berdin die horiek andre nagusia izateak, umea edo elbarritua. Hau guztia agindu politiko bat da, presoak eta senideak zigortzeko, presioa sartzeko. Dispersio politikaren beste pausu bat.

Egoerari buelta emateko eta euskal preso politikoei dagozkigun eskubideak bermatzeko, kartzelatan borroka-dinamika ezberdinak egiten jarraituko da. Eta kalean ere ezinbestekoa da zuen inplikazioa, euskal preso politikoen kontrako bidegabekeriak, jipoiak, mehatxuak, mediku-asistentziarik eza eta abar luze bat salatzeko. Hau guztia planifikatutako dispersio politika baten barruan dago, familia eta lagunak zigortzen dituen, bidaia luzeak egitera behartzen dituen eta auto-istripua izateko arriskuan jartzen dituen... bidean hiltzeko arriskuan.

Denon artean lortuko dugu. Eman ezinik gelditzen den besarkada bidaltzen dizuet. Animo eta segi aurrera!

Josu Ginea Sagasti, euskal preso CD Salon De Provence kartzelatik (Marseille)


Bide-sareak eta argiztapena, lezamarren kezka nagusien artean

Lezamako Udalak bilerak egin ditu herritarrekin, horien kezka, kezka eta iritzia ezagutzeko. Horrez gainera, lezamarrek udal telefono eta helbide elektronikoaren bitartez ere izan dute euren iradokizunak Udalari helarazteko aukera. Udaletik jakinarazitakoaren arabera, herritarrek gehien kezkatzen dituzten gaien artean hauexek daude: bide-sareak, argiztapena, garbiketa eta estolderia. Ekarpinak aztertu ondoren, hainbat lan egin dira. Esate baterako, arekak garbitu dituzte eta leku ilunak argiztatu dira. Beste alde batetik, ur-sarea eta zenbait lekutako estolderia hobetu egingo dira aurtun. Udaletik azaldu bezala, udal eremutik kanpoko gaiak ere aipatu dira bileretan: ibaien garbiketa, baso-errepideak, abiadura-kontrolak eta trenbide-sare, besteak beste. Horiei dagokienez, "Udalak beharrezkoak diren izapideak egingo ditu erakunde eskudunen aurrean".

Kintoek zamudioztarrei

Santa Ageda bezperan, Txorierriko leku batetik bestera ibili ziren kintoak, lagunak eta taldeak kantatzan. Zamudioko kintoek eskerrak eman nahi dizkie herritarrei eta batez ere baserritarrei eurekiko izan zuten jarrera abegitsuagatik.

Deriok 6.550 euro batu ditu, Haitira agintzeko



Argazkia:
DerioKOMunikazioa

Tragediak gogor jo zuen Haiti urtarri-lean. Hilabete horretan lurrikara bi izan ziren herri horretan eta ondorioz, 200.000 pertsona baino gehiago hil ziren. Horrez gainera, 250.000 zauritu egon dira eta bi milioi haitiar baliabide barik lotu dira.

Derion, ongintzazko gala antolatu zuten otsailaren 19an, Haitiren alde. Galan 3.365 euro batu ziren, eta dirukopuru horri Udalak emandako 3.000 euroko laguntza gehitu behar zaio: 6.365 euro, orotara. Dirua Medicos Mundi elkar-

teari eman zaio, horrek laguntza Haitira agin dezan.

Ekitaldian Sutondoan elkarteak, Ipar-Alde abesbatzak, Untza mendi taldeak eta Dendarien eta Ostalarien Elkarteak hartu zuten parte. Era berean, hurrengoak ere aritu ziren galan: Mikel eta Sara dantzariak, Irati eta Alazne Haitiren gaineko ipuin lehiaketaren irabazleak, Fernando Zamora poeta, Sisniega abeslaria eta tinbal talde bat. Gurea Aretoa jendez gaitzeka egon zen.

ASADOR ARAMENDI

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arleaga auzoa, 119
Telefonoa: 94 412 11 18
ZAMUDIO

MUNGI

GAZTEKIN TARDERA

GAZTEKIN TARDERA

GAZTEKIN TARDERA

GAZTEKIN TARDERA

LARRADETZU

LARRADETZU



Argazki lehiaketa

Inguruketa Zamudioko Argazki Elkar-teak argazki lehiaketa antolatu du lehenengoz. Ekimenak helburu hau du: urte-sasoi bakoitzean herriak eskaintzen dituzten ikuspegiak batzea, 2011. urteko egutegia osatzeko. Egutegia 12 argazkik osatuko dute; hiru, urte-sasoi bakoitzeko.

Lehiaketan edonork har dezake parte, eta gaia librea da. Hala ere, Zamudioren inguruko lanak baino ez dira onartuko: hirigunea, paisaia, baserriak, industria, komertzioa... Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahalko ditu urte-sasoi bakoitzeko.

Lanak zuribeltzezkoak izan ahalko dira, edo kolorezkoak. Ukitu digitala onartuko da. Kategoria bakarra egongo da urte-sasoi bakoitzeko hiru argazkietarako. Horiek paperean aurkeztuko dira eta neurri hauek izan beharko dituzte: 18x13 cm. Horrezaz gainera, lanak CD batean ere

aurkeztuko dira, jpg formatuan. Argazki digitaletan 250ppko erresoluzioa eduki beharko dute, eta 30x20 cmko neurria. Lan guztiak formatu horizontalean egingo dira.

Argazkiak eta CDa gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira udal liburutegian. Gutun-azalean datu hauek eman beharko dira: izen-abizenak, telefonoa eta helbidea. Parte-hartzaileak argazki elkarteren bateko kidea bada, hori ere jakinarazi beharko da. Lanak aurkezteko epeak hauek izango dira: neguko argazkiak, martxoaren 22ra arte; udaberrikoak, ekainaren 23ra arte; udakoak, irailaren 22ra arte; eta udazkenekoak, azaroaren 17ra arte. Epaimahaiaren erabakia aste biko epean jakinaraziko da aipatutako datetatik. Urte-sasoi bakoitzeko 25 euroko hiru sari emango dira. Lanik onenak ikusgai jarriko dira Zamudiotorren.

Urre bi, Doyan gimnasioarentzat

Otsailaren 13an Taekwondo Euskadiko Txapelketa egin zen Etxebarrin, junior kategorian. Txapelketan Doyan Derioko gimnasio-ko neska-mutilek hartu zuten parte. Iñigo Galan eta June Gonzalez urrezko domina bana eskuratu zuten eta Markel Larrabeitik zilarrerzko domina irabazi zuen. Horrezaz gainera, beste lau taldekideek eskuratu zuten brontzezko domina: Kerman Arranz, Ander González, Gorka Duran eta Andima Freire. Martxoaren 20an Espainiako Txapelketa izango da, eta bertan, Iñigo, June, Markel eta Andima ibiliko dira norgehiagoka. Beste alde batetik, aipatu behar da Asier Rodríguez Doyaneko maisua Euskadiko hautatzaile izendatu dutela junior kategorian.



**GARRIKOI A
OGITELGIA**

Produktuak
Aurkituak
Hartuak
Ikerketak

Marabola, 10/11. 1. eta 2. solairuak
Tel: 04 455 81 27
918 001400



J. ELONKALAGA
Kalea: 100m/100m. 100m/100m
100m/100m
100m/100m



Truck Company
100m/100m
100m/100m



**Poligrafi
Estetika**
100m/100m
100m/100m



Uguiza
100m/100m
100m/100m

Ikastaroak, Lagatzuren eskutik

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak ardo dastatze ikastaroa antolatu du martxoaren 9rako, 11rako eta 12rako. Ekimena arratsaldeko 7etatik 9etara izango da Larragoiti jauregian. Ikastaroak 20 euro balio du bazkide eta berba-lagunentzat; eta 30 euro, gai-nontzekoentzat. Izena ematea 944523447/688693655 telefono-etan egin daiteke, edo lagatzu@lagatzu.org helbide elektronikoaren bitartez.

Beste alde batetik, "Umeen kantak eta jokoak" gurasoentzako ikastaroa egingo dute martxoan eta apirilean, Elizalde guraso elkartearekin batera. Ikastaroa Itsaso Arrietak emango du eta data hauetan izango da: martxoaren 5ean, 12an, 19an eta 26an; eta apirilaren 16an, 23an eta 30ean.

Udan umeak hartzeko argibideak

Udan ume sahararrak eta errusiarrak hartzeko asmoa duten Sondikako familiek udal telefonora deitu ahal dute: 94 453 51 71. Bertan argibideak emango dizkiete eta harremanetan jarriko dituzte abegi-kanpainak antolatzen dituzten erakundeekin. Era berean, abegi-familientzako udal laguntzen berri emango diete.

Lapikok eraikuntza materialak doan emango dizkie langabetuei

Krisi garaian adimena zorroztu behar da. Adimena zorroztu, aurrera egiteko; eta, zergatik ez, behar dutenei era batean edo bestean laguntza emateko. Lapiko Lezamako enpresak 30 urte bete ditu aurtan eta urteurrenaren haritik, aukeren azoka antolatu du otsailetik martxora bitartean. Azokan stockeko gauzak jarri dituzte salgai, hiru eurotan metro koadroko: azulejoak, leiho-isurkiak, beirazko blokeak, portzelana eta zerrenda apaingarriak, batzuk aipatzearren. "Orotara 159 artikulu jarri ditugu salgai, eta ekimenak ikusmina sortu du. Material guztiak kalita-

te handikoak dira". Azoka egunero dago irekita. Saltzen ez den materiala langabetuei emango diete doan, apirilean. "Etxean konponketa txikiak egiteko erabil dezakete materiala: balkoiko edo komunezko zorua konpontzeko, esate baterako".

Beste alde batetik, urte osoan zehar hainbat ekimen antolatuko dituzte. Horrela, hiru dimentsioko erakustaldia egingo dute eta opariak zozketatuko dituzte bezeroen artean. Era berean, Txorierriko azoketan parte hartzeko asmoa ere badute, euren produktuak bertokoei ezagutzera emateko.



TXIBOLINA
LIZIARNA

74

Encomendado por
FARMACIA DE
BIOLOGIA

El Valle Txibolina
Farmacia de Biología

Muñoz-Suñer, María Jesús. 1984. Universidad de Zaragoza
LABORATORIO
1984-1985-86

CONSTRUCCIONES Y REPARACIONES
DE TODO TIPO DE OBRAS DE CONSTRUCCION

**EXCAVACIONES
AZURMENDI**

CONSTRUCCIONES Y REPARACIONES DE TODO TIPO DE OBRAS DE CONSTRUCCION

CONSTRUCCIONES Y REPARACIONES DE TODO TIPO DE OBRAS DE CONSTRUCCION

**Baserritarren Alkartea
Txizama S. Coop.**

Arreola, 11 48940
495011200
945 100 48 16
Baserriaren Alkartea
Arreola, 11

Baserritarren Alkartea



Larrabetzu, poliziak hartua

Guardia Zibilak ustezko ETAkide bat atxilotu zuen otsailaren 13an, eta, horren ondorioz, beste atxiloketa eta miaketa batzuk izan ziren hurrengo egunetan. Miaketa horietako bat Larrabetzun egin zen otsailaren 15ean.

Larrabetzutik.org webgunean azaldu-takoaren arabera, Guardia Zibila arrastiko 4ak inguruan azaldu zen Iturrikoetxe auzoan, eta alde hori zigilatu zuten. “Sei atari eta kale batzuk inkomunikatuta egon ziren, eta ia 90 familia ibili ziren etxera sartu eta etxetik irten ezinik”. Operazioan Ertzaintzak ere hartu zuen parte. “Herriar batzuek euren burua identifikatu behar izan zuten, autoa hartu ahal izateko. Autoak ere miatu zituzten. Beste batzuek nortasun agiria erakutsi behar izan zuten, etxetik irten edo sartu ahal

izateko".

Lekukoen arabera, Guardia Zibilak Iturrikoetxeko pisu bateko atea behera bota eta barrua miatu zuen. Etxean ez zegoen inor. Gaueko 9ak aldera, etxebizitzabloke osoa hasi ziren miatzen, epailearen agindurik gabe. "Auzokideak euren etxetara, lonjetara, ganbaretara... sartzen uztera "gonbidatu" zituzten. Hala egin ezean, geroago epailearen aginduekin etorriko zirela esan zieten". Poliziak gaueko 10ak aldera joan zen herritik. Larrabetzutik jakinarazi zuten bezala, manifestaziora deitu zen hurrengo egunerako, asteleheneko gertaerak salatzeko. Ekitaldia bertan behera utzi behar izan zuten, Erztaintzaren presioaren eraginez. Horrezaz gainera, egun osoan herritik polizia batzuk kale jantzian ibili zirela esan zuten.

54 etxebizitza gehiago intsonorizatuko dira

Ingurumenaren jarraipen-batzordea otsailean batu da berriro. Bilera horretan jakinarazitakoaren arabera, AENAk onartu du soinu-isolamenduaren lanak 54 etxebizitza gehiagotan egitea. Gaur egun arte 62 etxebizitza hartu ditu AENAK Bilboko Aire-portuaren Isolamendu Akustikoaren lehenengo fasearen barruan. Dagoneko, Derioko zortzi etxebizitzatan egin dira soinu-isolamenduaren lanak

Beste alde batetik, Gorka Carro Sondikako alkateak Diputatuen Kongresuko Sustapen Komisioaren aurrean egin zuen berba, Aireko Nabigazioaren Legearen erreforma-
ren haritik. Carro Bilboko aireportu-
tik hurbil dauden udalerrien izenean
aritu zen. Alkateak eskatu zuen lege
berriak AENA, AESA eta udalerrri kal-
tetuen artean lan-sistema iraunkorra
eta egokia sortzea; eta horretarako,
aireportuaren etorkizunari buruzko
erabakiak hartzen dituen erakunde
iraunkorra sortzeko. Esan zuen beza-
la, Administrazioak denbora luzea
ematen du aireportuaren inguruan
egin nahi diren egitasmoiei erantzun-
a emateko, eta horrek kalte handia
ekartzen dio Txorierriri, ekonomia,
lan, enpresa eta administrazio mailan.
Carrok beharrezkotzat jo zuen
komisio iraunkorra bultzatzeko, "ara-
zoei aurre egiteko, eta gure udale-
rrietan eragina duten garraiobideen
gaineko erabakietan geuk ere parte
hartzeko"


**LITVANSKĖ
SĄMOKŠLĖ
AKADAMIJA**

ARTS EDUCATION SCHOOLS E.A.

JOHAN MARIUS JANIS JONIS VJ

Tiesioginiai bendradarbiai, planifikavimas,
gyvenimo, mokymosi, mokymosi
patyrimas ir mokymosi

Mokymosi Planas, 2. T. 1. / Roma / 24. 153. 10. 77
40140 MOKYTOJA (Mokymosi)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.r.l.

GAMINIZ
JATETXEA



Helburua: 944 26 7722
www.gaminiz-jatetxea.com

Bandak 212, Paktu Intermunicipala
48940 Leizorako (Bizkaia)
GEMINIZ JATETXEA



www.gaminiz.com

Bata besteagaz, lezamarrok euskeraz

Zorritzetan euskera alkarteak ekitaldiz eta asmoz betetako egitasmoaren bitartez helduko deutso 11. urteurrenari

Zorritzetan Lezamako euskera alkar-tea joan dan mendearen amaieran jaio zan, eta mende barrian emon ditu lehenengo pausuak. Herrian euskeraren erabilerea sustatea helburu dabela, hizkuntza eta euskal kulturari lotutako ekintza sorta zabala antolatu dabe horren kideek, eta alkarte Lezamako eragilerik garrantzitsuenetariko bat bihurtu da. Egunak joan egunak etorri, 11 urte igaro dira ia konturatu barik.

Urteak jai-giroan ospatu behar dira, poztasunez eta harrotasunez. Eta halan hain zuzen be ospatu gura dau alkarteak 11. urteurrena. Ekitaldiak urte osoan zehar egingo dabez eta hitzaldiak, umeentzako ikuskizunak, kontzertuak, literatura lehiaketak eta bertso afaria, besteak beste, antolatuko dira. Ospakizun-ekitaldi guztietan herriko zein Txorierriko euskaltzaileen berotasuna eta atxikimendua sentidu gurako leukie.

Alkarteak logotipo barria atera dau urteurrenaren haritik, eta aurrera begira hainbat helburu hartu ditu erronkatzat. Egin be, ahalegin sendoa egingo dabe Lezamako kolore guztietako jentearengana heltzeko. Ganera, gogoz egingo dabe behar, euskera eguneroko bizitzaren arlo guztietan gero eta agiriagoa izan daiten. Helburu barriei heltzeko, ezinbestekoa da atzera begiratu eta hausnarketa sakona egitea. Horretarako, bada, orain arte egindako beharra izango dabe aztergai, eta galdesorta zabalduko dabe bazkide eta herritarren artean, alkartearen ibilbidearen ganean daben eretxia ezagutzeko.



Martirako antolatutako ekitaldiak

Martiaren 19an, barikuan

16:00 eta 18:30: *Irrien lagunak* ikuskizuna, Pirritx, Porrotx eta Marimotots paila-zoen eskutik. Frontoian.

Martiaren 23an, martitzenean

19:30: Berbaldia, Athleticen emakumeen taldeko jokalariren eskutik. Uribarri Topalekuan.

Martiaren 26an, barikuan

19:00: Mahai-ingurua, Nafarroako eta Txorierriko euskera alkartearen artean. Uribarri Topalekuan.

21:00: Bertso-afaria: Miren Amuriza, Je-

xux Mari Irazu, Etxahun Lekue eta Jon Maia; gai-jartzailea: Arkaitz Estiballes. Lubarrieta jatetxean. Lagatzu Zamudioko euskera alkarteagaz batera antolatua.

Martiaren 27an, zapatuan

21:00: Txorierriko taldeen kontzertuak: Habemus ratas eta Auskalo non. Frontoian.

Argibide gehiagorako:

688 69 36 55

zorritzetan@gmail.com

Inprimategia | Komunikazioa | Eskaintza digitalak | Scanner & txosten elektronikoa | Argitalaritza

Zamudio

Plaza 11a, 48100, Zamudio
Tfn 945.21.176
E. zamudio@scionoplan.es

scionoplan
Soluzioak

BARAKALDO | BILBAO | DEUSTO | ZAMUDIO

902 103 763
www.scionoplan.es



Baserri hau Lezaman dago eta nire lagun batena da. Baserriak Oxangoiti du izena, baina beste izen batzuekin ere bada ezaguna: Ollungoiti, Oyungoiti edo Ojungoiti. Kondairak dio altxor bat dagoela etxeko atariko zutabe azpian. Baserria aldizkari batean agertzea izugarrizko ilusioa egingo litzaioke lagunari.

Argazkia: Jon Paulo, IZAE Zamudioko Argazki Taldea



“Baserritar txikiek emoten deutsie jaten munduari”

PAUL NICHOLSON | EHNE sindikatuaren kidea

Gurpide alkartea orain dala gitxi sortu da Larrabetzun. Bere asmoa baserriko produktuak bultzatzea da, eta helburu honeri jarraituz, Paul Nicholson konbidatu eben urtarrilean. Horrek elikatzeko burujaubetzari buruzko berbaldia emon eban Anguleri jauregian, eta AIKOR! aldizkariagaz be egon zan solasean.



t: G.E., Ines Serrano / a: Joseba Sainz de Murieta

Zer da elikatzeko burujaubetza?

Norberaren elikaduraren kontrola da; hau da, non, nork, eta zelan ekoizten diran elikagaiak. Horretarako, esparru politikoa behar da hainbat arlotan. Kontsumitzaileek eskubidea dabe zer jan, eta zelan eta non ekoiztu dan jakiteko.

Elikagai nahikoa ekoizten ei da mundu osoko lagunentzat, baina 1.000 milioi lagun goseak jota dagoz...

Eta hurrengo urtean, gehiago, ziurrenik: 2010ean beste 100 milioi gehiagok pairatuko dabe gosea. Historian ez da inoiz horrelako egoerarik gertatu. Gosea ez da klima-aldaketaren edo naturaren errua, politikaren ondorioa baino. Politika neoliberalak ekoizpen- eta ekonomia-eredu bat sortu dau, eta horrek gosea eragiten dau. Eredu honetan elikadura merkantzia bihurtu da, eta uritarrok geure eskubideak galdu doguz. Industria-eredua da, eta baserritar txikienak, hau da, gehienak, goseak jota dabilta. Bide batez, aitatu behar da munduko baserritar gehienak emakumezkoak dirala.

Mundua gero eta globalagoa da, baina zuek, oster, kontrako joera aldarrikatzen dozue elikagaiak dirala-eta. Batzuek pentsauko dabe atzera-pausoa dala...

Ez. Gure ustez, eredu neoliberal eta gaur egungo teknologia eta gizarte-injustiziak dira atzerapenak. Gaur egun baserritar txikiek emoten deutsie jaten munduari, bai Iparraldean, bai Hegoaldean. Ekoizten dan %10 baino ez da esportatzen. Batez be, soja eta artoa saltzen dira,

HORTZ - KLINIKA

Joseba Azurmendi Gurea

ORRIBERRI 48201 - 01100

Telefonoa: 941 800 708

gurea

Baserritar txikien elikadura

Baserritar txikien elikadura, 11

Baserritar txikien elikadura

Baserritar txikien elikadura

FLORRIETA

INSTALACIONES

Para una hermosa Primavera.

Oficina: 01100, 01100, 01100

01100, 01100, 01100

01100, 01100, 01100



baina ez dira erabiltzen gizakiei jaten emoteko, aziendaren pentsuak osatzeko baino.

Bideragarriak dira gaur egun neurri txikiko ustiategiak?

Munduko biztanleen erdia baserritar txikiak eta arrantzale artisauak gara. Beraz, gure zeregina funtsezkoa da.

Ustiapen modua erabagiteko eskubidea be aldarrikatzen dozue. Erexi errealista da gaur egun?

Bai. Gaur egun nekazaritza, heziketa edo teknologia mailako politika guztiek bide oker batetik bideratzen dabez baserritarrak. Enpresa handien ustez, ekoizpena da garrantzitsuen, nahiz eta hori lurrrarentzat kaltegarria izan. Guk, oster, nekazaritza ekologikoa aldarrikatzen dogu.

Eta gizarteak bat egiten dau zuen proposamenakaz?

Ez. Argi dago Iparraldean nazinoarte enpresek menperatzen daben merkaduren alde egiten dala. Hegoaldean, aldiz, beste sentsibilitate bat dago. Via Campesina alkartean uste dogu ez dagoala gatazkarik Iparraldea eta Hegoaldearen artean; gure burruka eredu eta politi-

Nekazari militantea

Paul Nicholonek kontsumitzaileei zuzenean saltzen eutsen esnea. Euskal Herriko Nekazarien Alkartea (EHNE) sindikatuari sartu zan, eta geroago Nekazaritza-Alkarteen Konfederazioan (COAG). Ez da harritzekoa, beraz, Via Campesina alkartearen sortzaileetako bat be izatea. Mundu mailako milaka baserritarrek osatzen dabe nazinoarteko erakunde hori. Via Campesinak gogor salatu dauz eredu neoliberalaren gehiegikeriak.

ka batzuen kontra dago.

Zer eragin euki dau nekazaritzan gaur egungo krisi ekonomikoak?

Nekazariok 30 urte daroaguz krisian. Azken urteotan beste pausu bat emon da baserritarrei gitxiago ordaintzeko. Larria izan da esne sektorean, batez be. Azken urte biotako krisia aprobe txau da merkadua gehiago liberalizateko. Estatuek ekoizpena eta kontsumoa kudeatzeko tresna politikoak daukiez. Tresna horreek desagertu egin dira, pribatizatu diralako, eta gaur egun nazinoarteko enpresen eskuetan dagozalako. Era horretan kontsumitzaile eta baserritarrak indar politiko barik itxi gaitue.

Nekazariok 30 urteko krisiari eusten zabilzela dinozu. Zer egin dozue bizitzeko?

Ez dakit. Euskal Autonomi Erkidegoko %1 baserritarrak dira, eta Euskal Herri osoko %3. Oso ehuneko txikia gara. Baina egoera ez da berbera mundu mailan. Afrika hartu ahal dogu adibidetzat: biztanleen %70 nekazariak dira; eta Asian, %60. Kontinenteen arteko desoreka hori gizarte-arazo handia da. Nekazariok geure jardureagaz jarraitu gura badogu, lortu

behar dogu alde batetik, elikadura-soberranotasuna; eta bestetik, itun sendoak gizarteagaz.


Nekazariet gero eta gitxiago ordaintzen jake gaur egun ekoizten dabenaren truke; elikagaien prezioek, oster, gora egiten dabe etenbarik. Zergaitik?

Nekazaritza-Alkarteen Konfederazioak (COAG), Estatu mailako sindikatuak, egin dau ikerketa. Txostenak produktuz produktu aztertu dau azken hiru urteotan baserritarrek zenbat kobraten daben eta kontsumitzaileek zenbat ordaintzen daben. Aldea %600tik %1000-%1.200era biartekoa da. Nazinoarteko enpresek elikadura-kate osoa menperatzen dabe. Ondorioz, euren ezarten dabez erosteko zein saltzeko prezioak. Euren podere ekonomikoa ez ezik, politikoa be bada. Eta horregaitik oso garrantzitsua da baserritar eta kontsumitzaileen arteko hitzarmena sortzea.

Nekazariet ez dabe ordezkorik, gazteek baserrian behar egin gura ez dabelako. Etorkizun baltza dauka nekazaritzak, ezta?

Baserritar gazteak dira etorkizuna, baina euren ez dabe lurrik topaten behar egiteko. Lurra merkantzia bihurtu da, eta espekuletetako erabiltzen da. Gure herri txikietan lurra topaten lagundu behar deustegu baserritar gazteei. Holan, merkadua sortuko dogu tokian-tokiko produktuentzat. Baserritar barrien arazoa larria da, baina tresnak egon badagoz honerri buelta emoteko.

"Kontsumitzaileek eskubidea dabe zer jan, eta zelan eta non ekoiztu dan jakiteko"



Zelan sartu zinan udaletxean?

Derioko ludotekan egiten neban behar, eta Loiun oposaketa egongo zala ikusi neban. Profesional mailan aurrera egiteko aukerea ona zala pentsau neban eta aurkeztu egin nintzan. Unibersidadean hainbat gauza irakasten deusue eta berton, udaletxean, horreek guztiak jarri geinkez praktikan.

Zertan datza zure lana?

Hainbat gauza antolatzen doguz: ludotekako programea, azoka, jaiak, ekin-tzak, bidaiak, gazteentzako ekimenak, nagusiei laguntza emoten deusgu.... Kultura oso esparru zabalean lantzen dogu.

Zer da gehien gustaten jatzuna? Eta gitxien?

Ekitaldiren bat antolatu eta egiten danean, bulegotik kanpo atera eta jentegaz egiteko aukerea dot. Orain dala gitxi, adibidez, Aratusteetan, herritarraz egon naz berbetan, txitxi-burruntzia jaten genduan bitartean. Horrelakoetan, jentek esaten deuszu zer dagoan txarto eta zer ondo. Beste alde batetik, batzuetan egin behar dan burokrazia (kontuak atera, agiriak bete...) astuna da eta hori ez jat gustaten.

Herri txikerra izateak abantailak edo desabantailak daukaz kultura ekitaldiak antolatzeko orduan?

Loiu herri txikitxua da, eta ez dauka eskola publikorik. Ganera, hiru auzotan dago banatuta, eta horregaitik populazioa apur bat sakabanatuta dago. Batzuetan jentea erakartea gatxa bada be, loiu-tarrek normalean hartzen dabe parte ekintzetan.

Txorierrin jaio, hazi eta behar egin. Gustura, ala kokotaraino zagoz?

Gustura, oso gustura. Gaztea naz eta etxetik hur behar egiteko aukerea dot. Txorierrizugarri gustaten jat, eta hemen berton erosi dot etxea. Beti egon naz hemen eta giroa gustaten jat.

Zelango eskaintza dago Txorierrin

"Gura dauanak euskera

IXONE URRUTIKOETXEA | Loiuko Udaleko kultura teknikaria

Txorierritar peto-petoa da Ixone Urrutikoetxea. Derion jaio, hazi eta bizi da, eta beharra Loiun egiten dau. Eta pozaren pozez, ganera. Gizarte hezkuntzan eta psikopedagogian lizentziadun hau Derioko ludotekan hasi zan beharrean, eta gaur egun Loiuko udaletxean dabil kultura teknikari.



z bizitzeko aukerea dau Txorierrin"

kultura mailan?

Eskaintza handia dago, gero eta handiagoa. Herri guztietan dakigu nora joan informazioaren bila. Esaterako, ekintza pilo bat antolatzen dira gazteentzat. Euren lonjetan edo gazte-guneetan alkatzen dira. Eta zerbait behar izanez gero, jakin badakie nora joan, besteak beste, lan, etxebizitza edo aisialdiari jagokenez. Zinea, antzerkia, jaiak, laster Baserri Antzokia be egongo da... Giro polita sortu da Txorierrin eta gazteak hasi gara asteburuak hemen pasaten. Nagusiei begira, gauza bera gertatzen da.

Zeintzuk dira erronkak kultura arloan?

Eskaintza gero eta oparoagoa emon behar dogu. Holan, berton geldituko gara txorieritarrok gure aisialdiaz gozetako. Eta horretarako, Udalen artean koordinatu behar da eskaintza.

Udalekuen arduraduna be izan zinan. Zelango esperientzia izan zan hori?

Oso ona. Harremanetan zagoz umeak eta gazteak egiten dira egunero-egunero: tailerrak, dantzak, bideoak ikusi... Umeek eskolan eta gurasoengandik jasoten daben heziketa osatzen dogu: euskerea bultzatu, lagunarteko giroa eta alkargunea sortu...

Euskerea aitatu dozu. Euskerearen

*"Gehien gustaten
jatana jenteagaz
egotea da; gitxiena,
ostera, batzuetan egin
behar dan burokrazia"*

*"Txorierriko alkarteek
aberastasuna emoten
deutsee bai herriari,
bai kulturari"*

aldeko sentsibilitatea dago Txorierrin?

Bai, gauzak egin egiten dira, baina gauza gehiago egin leitekez. Esaterako, askotan euskerazko ekintzak antolatzen dira, baina horreetan jenteak gaztelaniara joteko joerea dau. Erakundeok euskerea bultzatzen dogu, baina leku batzuetan ez dabe barneratuta geure hizkuntza. Eta arlo horretan lan egin behar dogu. Dana dala, gura dauanak euskeraz bizitzeko aukerea dau Txorierrin.


Lainomendi Dantza taldeko kidea izan zara. Zer deritxazu Txorierrin da-



goan herri-mobimentuari? Alkarte nahikorik dago? Eraginkorrak dira?

Alkarteak badagoz eta horreek hainbat arlo jorratzen dabe: grafitiak egiten dabezanak, abesbatzak, mendi alkarteak.... Alkarteek aberastasuna emoten deutsee bai herriari, bai kulturari: guztiok ez doguz zaletasun berberak, bakotxa ezbardina da. Oso garrantzitsuak dira alkarteak. Izan be, Udaletako programazioaz gainera, alkarteek Udalei lagundu ez eze, ekintzak eta ekitaldiak antolatu be egiten dabe.





Astelehen beltza

t: Susana Rodriguez

Orain dela 100 urte, poliziak basakeriaz eraso zion hirurehun bat lagunek osatutako talde bati, Londreseko kaleetan manifestatzen ari zirela. Lagun horietako gehienak emakumeak ziren. Manifestariak Parlamentura zihoazen, gobernu britainiarraren aurreko bi urteetako jarrera immobilista salatzeraz eta emakumeei boto eskubidea emango zien legea berehala onarrez eskatzera. Manifestazio horren ostean, Emakumeen Batasun Sozial eta Politikoa (WSPU) antolakundeak tregoa eten zuen. Beste sasoi batean, aipatutako tregoa deklaratu baino lehen, mugimendu horrek manifestazioak antolatzen zituen, emakumeen egoera salatzeko. Izan ere, orduko politikariek ez zituzten emakumeen eskubideak aintzat hartzen. Manifestazioetan indarra erabiltzen zuten eta txikizioak sortzen zituzten herri-ondasunetan.

Hasieran azaldu dugun istilua 1910. urtean gertatu zen eta "Ostiral Beltza" izenez da ezaguna. Ostiral horretatik aurrera, mugimenduak sekulako indarra hartu zuen, Emmeline Pankhurst sufragisten buru zela.

Hammurabi Babiloniako erregeak K.a. XVIII. mendean egin zuen lehen kode juridikoan jasotako emakumeen eskubideei kasu egin bagenie, baliteke gaur egun martxoaren 8a ez aldarrikatzea emakumearen eguntzat. Baina mendeak joan mendeak etorri, sexu bien arteko berdint-

tasuna arautzea xede izan zuen legezko ahalegin aurrendari hori ahaztu, eta emakumea bigarren mailako herritar bihurtu zen. Gainera, gizarte motel eta konformaerazegiaren gaitzespena jasan du, hein batean Eliza Katolikoak leporatu ohi baitio gizabanakoek sufritzen duten miseriaren erruduna izatea. Horretan oinarrituta, eskubide unibertsal batzuk ukatu zaizkie luzaroan emakumeei.

Hamaikaren izaera

Hala ere, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-eskubidea lortzeko borrokan, itxuraz ezin hautsizko horma guztiak apurtu ditu emakumeen indarrak. Historian zehar ez da egon sufragisten mugimendua bezain talde esanguratsu eta sendorik. Sufragistek indarkeriaz baino ezin izan ziren beste bidez baliatu, benetan uste baitzuten Ingalaterra viktoriarreko emakume eta gaitz gehienak -lan-baldintza jasangaitzak, prostituzioa eta emakumezkoen salerosketak- ez zirela amaituko harik eta legeak aldatu eta emakumeek boto-eskubidea eskuratzen

"Berdintasun-eskubidea lortzeko borrokan, itxuraz ezin hautsizko horma guztiak apurtu ditu emakumeen indarrak"

zuten arte. Indar horren adibideak sufragistek jasan behar izan zituzten irainak, erasoak, kartzelatzeak, gose-grebak, erbestealdiak... dira, baita heriotza ere. Emakumeen boto-eskubidea hil edo bizi-ko kontu bilakatu zen, benetako gizarte-berdintasunari eusteko.

Mende bat geroago, datorren martxoaren 8an, milaka herritar aterako dira kalera emakumeen izaera aldarrikatzera. Lana eta familia bateratu ezinean dabilen ama langilearen izaera aldarrikatzera. Adinekoak zaindu behar dituen alaba, errain edo ilobarena. Profesional bikaina izan arren, alboan duen maila bereko lan-kide gizonezkoak baino lansari urriagoa jasotzen duenarena. Zuzendaritza-lan-postuetara iristeko hamaika traba dituenarena eta laneko jazarpena jasaten duenarena. Hedabideek desira-gaitzat jotzen dutenarena. Adulterioa egin duelakoan, jendaurrean harrikatzen dutenarena. Klitoriaren ablazioa egin diotenarena. Burka janztera kondenaturik dagoenarena. Eta beste hamaikarena.

Beharbada, lurraren ezkutuko bazterren batean, aurtengo martxoaren 8a ere egun gogoangarria izango da emakumeen historian: 2010eko Astelehen beltza, alegia.



Emakumearen izaerako ekitaldiak

Datozen egunotan hainbat ekitaldi izango dugu gurean Emakumearen Eguna ospatzeko. Alea itxi orduko ekintza hauen berri izan dugu; adi egon, gehiago egongo direlako, ziur asko.

DERIO

Martxoaren 2an, martitzenean

17:00: "Emakumeen eskubideak garai guztietan" hitzaldia, Larrabari base-rian. Olga Macía abokatuaren eskutik.

Martxoaren 5ean, barikuan

El diario de Bridget Jones zineforuma, Gurea Aretoan. Garbiñe Etxebarria psikologoarekin.

Martxoaren 6an, zapatuan

13:00: Kontzentrazioa, udaletxean.

Martxoaren 8an, astelehenean

18:00: Emakumearen Nazioarteko Eguna, kiroldegiko atarian. Kafea, musika, *No te calles* gida banatzea...

Martxoaren 10ean, eguaztenean

19:00: "Zelan hezi gure seme-alabak auto-estiman" hitzaldia, liburutegian. María Méndez pedagogoaren eskutik.

Martxoaren 12an, barikuan

19:00: *Cobardes* zineforuma, Gurea Aretoan. Garbiñe Etxebarria pedagogoarekin.

ZAMUDIO

Emakumeek idatzitako liburuen gida, liburutegian. Liburuei buruzko iritziak ematen dituztenen artean, 40 euroko baleak zozketatuko dira.

Martxoaren 4an, eguenean

19:00: Udal Berdintasunaren Planaren aurkezpena eta sexu-jazarpenaren gaineko argibideak. Zamudiotorren. Udalak eta Lagunandre elkarteak antolatua.



20:00: Kopaua.

Martxoaren 6an, zapatuan

18:00: "Krisia generoduna ere bada" hitzaldia, Nekane Juradoren eskutik. Susterrak tabernan.

Martxoaren 8an, astelehenean

18:00: *Aitorren panpina* ikuskizuna, Ludo-terekin.

Graffiti tailerra, Gazte-estazioan: emakumeen irudiak.

Martxoaren 10ean, eguaztenean

20:00: "Emakumea eta literatura" hitzaldia, Josune Muñoz idazle eta literatur kritikariaren eskutik. Zamudiotorren. Lagatzuk antolatua.

Martxoaren 20an, zapatuan

11:00: *Nesken alde, denon alde* umeentzako antzerkia, doan.

LEZAMA

Laiak emakumeen elkarteak ekitaldi-aren bat egiteko asmoa du. Laster jakinaraziko dute zer, noiz eta non.

LARRABETZU

Antzerkia antolatzeko asmoa dago. Non eta noiz zehaztu barik dago.

AIKOR! 90
2010eko otsaila
www.aikor.com

AIKOR! 90
2010eko otsaila
www.aikor.com

Prezioak: 10, 15, 20, 25, 30, 35, 40, 45, 50, 55, 60, 65, 70, 75, 80, 85, 90, 95, 100

Bar TRIPPY
ZURU GIBRIK OINA

Bar TRIPPY
ZURU GIBRIK OINA

MODA INFANTIL
Tximeleta

MODA INFANTIL
Tximeleta

t: Gaizka Eguskiza / a: Euskaltel-Euskadi

Kolore askotako sugea esaten jako txirrindularien pelotoiari. Izan be, zerutik ikusita, tropela luzea da, eta txirrindularien maillotak hainbat koloretakoak dira. Horreen artean laranja dogu, geurea, Euskaltel-Euskadi taldearena. Athletic egaz gertatzen dan legez, Euskaltel-Euskadiko txirrindulariak bertokoak edo berton eginikoak dira, eta hori harro egoteko modukoa da. David, Goliathen kontra; galiarrak, erromatarren kontra; Euskal Herria txikia izan arren, mundu mailako txirrindularirik onenen kontra lehiatzeko gauza gara; metaforak amaiezinak dira. Harrotasun laranja.

Talde Miguel Madariagaren eskutik sortu zan 1994an. Hasiera batean ikurriaren koloreak janzen ebezan txirrindulariek: gorria, berdea eta zuria. Aldaketa Euskaltel enpresagaz batera etorri zan. Laranja da bere kolorea, eta taldeak bereganatu eban, Euskaltel 1997an babesle nagusia egin zanean. Itzelezko aurrerapausua izan zan hori taldearentzat. Gero,

“Lehenengotan lortu genduzan garaipen handi bi aitatuko neukez: 1994koa eta 2001eko Tourrekoa”

Talde profesionalaz gain, gazte mailako talde bik, gela pedagogikoak eta BTT Eskolak osatzen dabe Euskadi Fundazinoa

Harrotasun laranja

Euskaltel-Euskadi taldeak 17 urte daroaz onenen artean, eta hasiera-hasieratik txirrindulari euskaldunak baino ez dabilz bertan

garaipen nagusiak heldu dira. Madariagak bi aitatu dauz, batez be. “Tourrean lortu genduan lehenengoa oso berezia izan zan, Tourra lasterketarik garrantzitsuen dalako. Roberto Laisekak irabazi eban etapa, 2001ean. Baina nik lortu genduan lehenengoa be ekarri gura dot gogora: Agustin Sagastik 1994ko Euskadiko Itzuliaren 5. etapa lortu eban, eta hori oso inportantea izan zan taldearentzat”.

Baina garaipenak baino garrantzitsuegia, Euskaltel enpresaren eskutik gertatu zan bilakaera izan zan. “Hirugarren maila-

ko taldea izan ginan hasieran. Apurka-apurka hazi gara eta gaur egun UCI Pro Tour erakundearen barruan gagoz, hau da, munduko 18 talde onenatariko bat gara. Eta igaz 10. postuan amaitu genduan denporaldia”. Roberto Laiseka, David Etxebarria, Iban Mayo edo Haimar Zubeldia txirrindulariek lagundu eban garaipenak lortzen, eta gaur egun Samuel Sánchez, Igor Antón edo Mikel Astarloza-zen txanda da.

Talde bat baino gehiago

Txirrindularitza talde profesionala da Euskaltel-Euskadiko alderik ezagunena, baina ez da taldeak daukan alde bakarra. Izan be, atal batzuek osatuta dago. Euskadi Fundazioak taldea sortu ez eze, atal guztiak kudeatu be egiten dau. Madariagaren esanetan, “gazteen heziketa da gure funtsa”, eta horren haritik egiten dau behar Fundazioak. Horrek Euskal Herrian txirrindularitzako harrobia lantzea dau helburu, eta horretarako hainbat proiektu





Euskaltel-Euskadi

GARAIPENAK

–Frantziako Tourra: 3 etapa

2001, Roberto Laiseka

2003, Iban Mayo

2009, Mikel Astarloza

–Gazte mailako Frantziako Tourra:

2000, Iker Flores (sailkapen nagusia)

–Espainiako Itzulia: 8 etapa

1999, Roberto Laiseka

2005, Roberto Laiseka

2005, Samuel Sánchez

2006, Samuel Sánchez

2006, Igor Antón

2007, Samuel Sánchez (3 etapa)

–Euskal Bizikleta:

2000, Haimar Zubeldia (sailkapen nagusia)

–Euskal Herriko Itzulera:

2003, Iban Mayo (sailkapen nagusia)

–Dauphiné Libéré:

2004, Iban Mayo (sailkapen nagusia)

2005, Iñigo Landaluze (sailkapen nagusia)

–Olinpiadak:

2008, Samuel Sánchez (urrezko domina)

2010EKO TALDEA

–Managerra: Igor Glez. de Galdeano.

–Euskadi Fundazinoko presidentea:

Miguel Madariaga.

–Zuzendariak: Gorka Gerrikagoitia eta Álvaro Glez. de Galdeano.

–Txirrindulariak: Samuel Sánchez, Igor Antón, Javier Aramendia, Jorge Azanza, Sergio de Lis, Koldo Fernández de Larrea, Aitor Galdos, Aitor Hernández, Iñaki Isasi, Egoi Martínez, Mikel Nieve, Juanjo Oroz, Alan Pérez, Rubén Pérez, Amets Txurruka, Pablo Urtaşun, Iván Velasco, Gorka Verdugo.

–Altas: Romain Sicard, Jonathan Castroviejo, Miguel Minguez, Daniel Sesma, Beñat Intxausti y Gorka Izagirre.

jarri dauz martxan. Esate baterako, talde gazte bi sortu dauz talde laranjaren azpian: Orbea, kontinental mailakoa, eta Naturgas-Energia, 23 urtetik beherakoa. Guztira, 33 txirrindularik osatzen dabez talde biak, eta guztiek laranjaz janzteko ametsa dabe.

Euskaldunon taldea da Euskaltel-Euskadi; baina Txorierriaz lotura berezia dau: alde batetik, harreman onak dabezalako gure haraneko txirrindularitza taldeak; bestetik, Derioko Seminarioan dabelako egoitza. “Hasiera batean Bilbon genduzan bulegoak-eta, baina Txorierriko Mankomunidadeak eskaini euskun Derioko bulegoa, eta onartu egin genduan. Sartu ginanean, egoitzak ez eban baldin-


tza onik, baina konpondu eta apaindu genduan, eta gaur egun poz-pez gagoz Derion, leku guztietatik gertu dagoalako: Bilbo, autopista, aireportua...”

Bulego horretan gela pedagogikoa antolatzen hasi ziran 1998an. Bertan bizi-modu osasuntsuaren eta ekologiaren aldeko apustua egiten dabe bizikletaren bidez. Halan, “gazteenei txirrindularitza sentidu zabalean, ez soilik lehia legez, ezagutarazo beharra” dabela adierazo dabe taldeko webgunean. Pedagogia gelan bizikleta erabiltzen zein horretaz gozaten ikasten dabe umeek, baita txirrindularitzaren oinarriak be. Aretoak 170 m²-ko azalera dau. Gela teorikoa eta teknikoa, aldagelak, dutzak, zerbitzuak eta



Hästens den dör
Gazteko unibertsitateko
koltxoak

ARTEAGA koltxoi-denda
Derioko Seminarioa • 94 454 51 47 • berru



“Harrobiaren filosofiari eutsi gura deutsagu”

MIGUEL MADARIAGA | Euskadi Fundazinoko presidentea



Taldeko sustatzaile nagusia da Miguel Madariaga. Managerra izan da beti, baina aurton Fundazinoko presidente izendatu dabe. Bere lanpostutik ekonomia zein gizarte mailako jarduerak kudeatzen dauz. Kirol arloa Igor González de Galdeanoren ardurapean itxi dau, baina esparru horretan aholkulari izaten jarraitzen dau Miguelek.

Zelan hasi dozue denporaldia?

Ondo. Australian eta Mallorcan ibili gara eta pozik gagoz.

Zein izango da aurtengo egutegia? Eta helburuak?

Geure helburuak betikoak dira. Talde moduan ibili behar dogu, eta etxeko lasterketetan ondo ibili gura dogu. Egutegiari jagokonez, UCI Pro Tourrean gagoz sartuta, eta ondorioz, horren egutegiari jarraituko deutsagu. Besteak beste, Euskadiko Itzulian, San Sebastián-San Sebastián klasikan, Tourrean eta Espainiako Itzulian hartuko dogu parte. Azken bolada honetan Girora ez gara

“Txirrindularitzaren oinarria txarto dago gaur egun, baina dopinak ez dauka ardurarik horretan”

joan, emaitza onik lortu ez dogulako. Ganera, gure filosofia kontuan hartuta, ezin gara hiru itzuli handietara joan.

Igor Antón eta Samuel Sánchez dira korrikalari nagusiak. Horreetaz aparte, beste txirrindulariren bat aitatuko zeunke?

Igor eta Samuel garrantzitsuak dira eskarmentu handia dabelako. Egoi Martínez be aitatu gura dot, txirrindulari peto-petoa dalako. Ganera, aurton etorri jakuz gazteen artean etorkizun handiko bi dagoz: Iparraldeko Romain Sicard eta Beñat Intxausti bizkaitarra.

Gazteak eta nagusiak doguz plantillan eta, horreek biak buztartuz, ahalik eta emaitzarik onenak lortzen saiatuko gara.

Azken urteotan konfiantza handia euki dozue Antónengan. Behingoz egingo dau denporaldi polita Galdakaokoak?

Halan izan beharko litzateke. Igor Espainiako Itzulian erori zan igaz, eta horren ondorioz, lau ebakuntza egin eutsiezan. Edozein kirolarientzat zama ikaragarria da hori, eta txirrindularientzat, askoz handiagoa. Beraz, Igor ezin izan zan igaz behar bezala ibili. Espero dogu aurton bere maila erakustea.

Gatxa da txirrindulari euskaldunak baino ez aritzea?

Ez, ez da gatxa. Txirrindulari euskaldunak ganera, gazte-gazterik kanpotik ekarri eta bertan eginikoakaz be egiten dogu behar. Guk harrobia lantzen dogu eta filosofia honeri eutsi gura deutsagu.

Dopinak kalte handia egin deutso kirolari, ezta?

Garrantzi lar emon jako dopinari. Gaur egungo txirrindularitzaren oinarria txarto dago, baina drogak ez dauka ardurarik horretan; gizartea aldatu egin da gaur egun, eta gazte gehienek ez daukie mentalidaderik txirrindulari profesional bihurtzeko. Dopinaren haritik esan behar dot mesederik ez deuskula egiten, argi dago, baina dopina beste kiroletan be egon badago. Eta zergaitik ez dauka txirrindularitzan beste oihartzun? Txirrindulariek jazarpena pairatzen dabelako. Esate baterako, neguko Joko Olinpiarrik izan dira orain dala gitxi, eta lehendabiziko aldiz egin dira antidopin kontrolak. Hasi eta berehala, 50 eskiatzailek positiboa emon dabe bertan. Txirrindulariek egiten dabean beste kontrol gainontzeko kirolariek egingo balitue, hainbat eta hainbat positibo aterako litzatekez. Ziur nago.

Mikel Astarlozak positiboa emon eban igaz ustez EPO hartzeagaitik. Zelan doa auzia?


Oraindik ez dabe erabagirik hartu, eta geu momentuz zain gagoz. Gure ustez, Mikelen aldeko erabagia hartuko dabe; guk babesa emon deutsagu txirrindulariari.

Etengabe sortzen




TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarte-en Federazioak AIKOR! aldizkariaren 8. urteurrena ospatu zuen urtarriaren 29an, Zamudioko Teknologia Parkean. Bertara berrehundik gora euskaltzale bildu ginen, Txorierriko hainbat arlotakoak: base-rritarrak dendariak, irakasleak, kirol eta kultura elkarteetako kideak, aldizkariaren kolaboratzaileak, lagunak... Txorierriko alkateak eta Mankomunitatearen ordezkariak ere hurbildu ziren jaialdira.

Ekitaldia arrastiko 8etan hasi zen, Teknologia Parkeko eraikin nagusian. Txalaparta hotsek eta Lainomendi Derioko taldeko dantzariak ongietorria egin zieten bildutakoei. Aurreko urteetan bezala, Udane Goikoetxea kazetariak aurkeztu zuen ekitaldia. Kanpoan hotza eta euria ziren nagusi, baina barruan giro goxogoxoan murgiltzeko aukera izan genuen. Aurkezleak hitza eman zien hizlari, musikari eta protagonistei: Sorkunde Aiarza Zamudioko alkatea, Xabier Goienetxe aldizkariaren zuzendaria, Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreak eta Astrapala Lezamako musika taldea. Era berean, TO-



TOANek sorreratik hona abian jarritako proiektuak aipatu ziren, eta etorkizuneko egitasmoen berri eman: Baserri Antzokia, besteak beste.

Ekitaldia biribiltzeko, AIKOR! sariak banatu ziren. Lehenengoa Zamudioko RPM Suministros Informáticos enpresak jaso zuen. Bigarrena, Iñaki Astorkiza, Alberto Martinez de la Cuadra eta Jagoba Zallo aldizkariaren zuzentzaileek. Era horretan, euskararen eta aldizkariaren alde egiten duten lana eskertu genien. Sariak banatu ostean, kopaua eskaini zen eraiki-neko harrera-lekuan. Lagunen arteko solasaldia Bertoko Zamudioko taldeak girotu zuen.





**Magyarország, az ideiglenes kassza helye,
mármost hazánk, szomszédok, befektetőinkat
várjuk. **

Árnyék, 

Árnyék, 

Árnyék, 

Árnyék, 

Árnyék, 

Árnyék, 

Árnyék, 

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **


**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **

**Árnyék, **



BIDE-GORRI

Bide-Gorri

[illegible]

TZATZIKI

KONJAKS MENDAK

KEMALUTAN TORTILLAS

KEMALUTAN TORTILLAS

E-MAX

TECNICO

TRAFICANTE LAUREATO

INFORMATICA - SISTEMI - E SERVIZI TELECOMUNICAZIONI



HERATH-HEA
ALBERTO

Das ist unser Philosophie, wir
104 744 647 004 28
45 170 7740 1000



**ESTILISTA
EVA ARDINES**

AmAr

Adresă: Strada 15, Nr. 15, 150000
Suceava, România

0744 123 456 | 0744 789 012

www.amar.ro

"Helikopteroak nahi duzun lekura eramaten zaitu"

IGOR PETRALANDA | helikoptero-gidaria

Igor Petralanda zamudioztarra telekomunikazioetako teknikaria da eta ogibidea zaletasunarekin uztartzen du: helikopteroak. Duela urtebete eta erdi helikoptero-pilotu komertzialaren lizentzia atera zuen eta gaur egun irakasle dabil aireportuko terminal zaharrean, Sondikan.



t/a: Itxaso Marina

Noiz erabaki zenuen hegan egin nahi zenuela?

Helikoptero-pilotua izan nahi nuela betidanik eduki dut argi. Baina lehen kanpora atera behar zen ikastaroa egitera. Sondikan eskola zabaltzea mesedegarria izan da afizioa dugun askorentzat.

Zaila da helikopteroa gidatzea?

Apur bat konplexua bada, eskuak eta oinak ezin direlako inoiz aginteetatik kendu. Maparen bat kontsultatu edo kontrol-dorrearekin harremanetan jarri behar bada, hobe da ondoan lagunen bat izatea. Eta haizea badabil, zer esanik ez, askoz konplexuagoa da.

Polito ikusten da mundua hain altuera handitik?

Beno, normalean ez dugu oso altu hegan egiten, 100-150 metrotara. Hala ere, egia da maniobra zehatz batzuk egiten direnean altuera handiagoa hartzen dela. Eta bai, paisaia polito ikusten da zerutik. Gainera, helikopteroak badu abantaila bat: ikus-eremua askoz zabala da hegazkin batean baino. Hori da helikopteroz hegan egitea hainbeste gustatzen zaidan arrazoiatariko bat.





Besteren bat?

Aparatuak nahi duzun lekura eramaten zaituela. Helikopteroa edonon lurrera daiteke, gutxieneko segurtasun-tartea badago. Ondorioz, hegaldian bertan erabaki dezakezu leku batera edo bestera joatea. Mendien artean hegan egitea ere oso polita da.

Badu alde txarrik?

Bai, zaletasun garestia dela. Ikastaroa garestia da eta hegaldia-ordu bakoitzak ere dirutza balio du. Horregatik, ikastaroa egin ostean, askok denbora luzea eman dute hegan egin barik. Lizentzia berritzea ere garestia da eta hori urtero egin behar da. Ni zorionekoa naiz. Eskolan nabilenez, aukera dut noizean behin helikopteroa gidatzeko.

Helikopteroa gidatzeko izugarri gus-

tatzen zaizu; irakastea?

Bai. Erraztasuna dut gauzak azaltzeko eta horregatik animatu ninduten eskolak ematera. Nik teoria-irakasgai batzuk ematen ditut eta tutorea ere banaiz. Horrezaz gainera, hastapen-hegaldia ere egiten ditut. Ikaslea hartu eta buelta bat ematen diot helikopteroz, hark ikastaroa hasi baino lehen.

Zein baldintzak bete behar dira pilotua izateko?

Adin nagusikoa izan eta Batxilergo edo LH2ko ikasketak burutu izana. Era berean, azterketa medikua ere gauditu behar da. Helikoptero-gidaria izateak lan aukera gutxi ditu Euskal Herrian, baina Estatuko leku batetik bestera ibiltzeko arazorik eduki ezean, badago lana.

Arlo honetan, beste pausuren bat

ematea gustatuko litzazuke?

Irakastea gustatzen zait, eta gaur egun pozik nago lana eta zaletasuna uzartu ahal ditudalako. Hala ere, hegaldia-irakaslea izateko beharrezkoak diren gutxieneko orduak inoiz betetzea lortzen badut, eta nire ogibidean eraginik ez badu, arlo horretan ere aritzea gustatuko litzaidake.

Anekdotarik badago zeruan?

Behin, irakasleak eta biok Plentziatik Sondikara gentozela, enara akrobatiko bat azaldu zitzaigun bidean. Txoria zuzen-zuzen zetorren gugana eta helikopteroaren kabina zeharkatuko zuela pentsatu genuen. Aparatua neuk gidatzen nuen eta txoria saihesteko helikopteroa biratzen banuen okerrago izan litekeela pentsatu nuen. Helikopteroa zuzen eramatea erabaki nuen, "berak saihestuko gaitu gu!". Hegaztiak gure kontra jotzear zegoenean irakasleak eta biok erreakzio bera izan genuen: gorputza ezkerrera mugitzea. Xelebrea izan zen; eta bai, enarak gu saihestu gintuen arazo barik.

"Paisaia polito ikusten da zerutik. Gainera, helikopteroaren ikus-eremua hegazkinarena baino askoz zabalagoa da"

Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



IRAKASLEAREN GORRUPAK



IRAKASLEAREN GORRUPAK

Plentziatik

Arlo honetan, beste pausuren bat



902 54 08 54 www.arlan.ea





Txorierrik D ereduari eutsi dio

Aurten bi eta hiru urteko 196 umek egin dute matrikula Txorierriko herri-ikastetxeetan: 48 ume, Sondikan; 55, Derion; 31, Zamudion; 18, Lezaman; eta 44, Larra-betzun. Bertoko herri-ikastetxean D eredu baina ez da eskaintzen, eta hori, hain zuzen ere, izan da guraso guztiek aukeratu dutena. Hala ere, salbuespena egon da Derion, ume baten gurasoek lehenengo aukeratzat A eredu hartu baitute. Iratxe Aiarza eskolako zuzendariak azalduakoa-ren arabera, gurasoek jakin bazekiten eskola D eredukoa dela, baina A eredu

errebindikazio moduan aukeratu dute. Umea eskolan matrikulatu dute, D eredu. Beste alde batetik, Sondikan ere egon da eskaera bat A eredurako. Hura herritik kanpo ikasten duen 3. mailako ikasle baten gurasoek egin dute. Ikastetxetik esan duten bezala, umea dabilen eskolatik agindu dituzte Sondikara, "matrikula egitea bertan zegokiakoa. Baina guk D eredu baina ez dugu eskolan". Umeak gaur egungo ikastetxean jarraituko du datorren ikasturtean.

Guraso batzuek zalantzak izan dituzte

seme-alabak eredu batean edo bestean matrikulatzeko orduan. Izan ere, bestelako informazioa zabaldu da leku batetik eta bestetik, eta aspaldiko kezak azaldu dira berrir. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aukera eman die gurasoei nahiago duten eredu lehenengo aukeratzat hartzeko, nahiz eta hori eskolan ez egon. Horrezaz gainera, ikastetxe edo eskualde baten A edo B eredu nahiago duten 20 ume baleude, eurentzako gela zabaltzeko aukera egon liteke. "Hau da, Txorierriko 20 umek A eredu ikasi nahi

"Informazioa ez da behar bezala eman eta gurasoak nahastu baino ez da egin"

"Umeak ondo hezten dira edozein eredutan, eta hori ezin da zalantzan jarri"



izanez gero, eredu horretako gela zabal-
tzeiko aukera egon liteke edozein herri-
ikastetxetan”, aipatu du Belen Mellado
Zamudioko eskolako zuzendariak.

Txorierriko Mankomunitateak D ere-
duaren aldeko kanpaina zabaldu zuen
matrrikulazioen aurretik, eta, jakin izan
dugun bezala, Derioko gurasoek A eta B
ereduen aldeko informazioa ere jaso du-
te. “Aurreko urteetan ez bezala, guraso
batzuk zalantza handiak zituztela etorri
dira gugana aurten: zein eredu den one-
na, unibertsitateari begira zein den ego-
kiena...”, esan du Aiarzak. “Gurasoak na-
hastu baino ez da egin”.

Herrian integratzea

Duela 20 urte inguru apustu sendoa
egin zen Txorierrin D ereduaren alde, eta
handik hona eredu hori nagusi izan da
bertoko herri-ikastetxetan. Gaur egungo
datuak eta egoera kontuan hartuta, Za-
mudio eta Derioko zuzendariak argi dute
gurean beste eredurik ez dela posible.

Euskara hutsean ikasteak ekar ditza-
keen ondorio negatiboak azpimarratu
dira sektore batzuetatik: umeek gaztela-
nia ondo ez menperatzea, ikasteko zailta-
sunak, edo gurasoak erdaldunak badira,
seme-alabei etxerako lanekin lagundu
ezin izatea, tartean. “Hezkuntza-eredu
guztiak dira onak: A, B edo D. Eta umeak
era egokian eta ondo prestatuta hezten
dira edozeinetan”, aipatu du Melladok.
Bere ustez, ikasleak ikasgai batekin arazo-
rik badu, hori ikasgaiaren beraren ondo-
ria da; ez hizkuntzarena.

“Argudio horiek soilik erabiltzen dira
euskararen kontra”, gaineratu du Aiarzak.
“Seme-alabak ikastetxe frantses edo in-
gelesera eramaten direnean, ez da za-
lantzarik azaltzen hizkuntza dela-eta. Zer-
gatik bai euskararekin?”.

Ondorio negatiboak baino, abantaila-
k dakartza euskaraz ikasteak. “Lehenen-
go eta behin, eta gure ustez inportantea
dena, umea bere herrian integratu
egiten da. Era berean, gaztelaniak gure
inguruan duen eragina kontuan hartuta,
hizkuntza biak menperatuko ditu arazo
barik. Are gehiago, gaitasun handiagoa
izango du, beste hizkuntza batzuk ikaste-
ko”. Edozelan ere, irakasle bien iritziz,
gaur egun arte umeak edozein hezkuntza
eredutan hezi dira ondo, eta hemendik
aurrera ere heziko dira ondo. “Eta hori
ezin da zalantzatzen jarri”.



TXORIERRI
2010-2011

Herri-ikastetxeak, ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkarlanean lanean ari dira.

Herri-ikastetxeak, ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkarlanean lanean ari dira.

Herri-ikastetxeak, ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkarlanean lanean ari dira.

Herri-ikastetxeak, ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkarlanean lanean ari dira.

Herri-ikastetxeak, ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkarlanean lanean ari dira.

Herri-ikastetxeak, ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkarlanean lanean ari dira.

GOIKO TABERNA

Taberna ikastetxe

Herri-ikastetxeak, ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkarlanean lanean ari dira.

G

Herri-ikastetxeak, ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkarlanean lanean ari dira.

GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK ERABUNTZAK

Herri-ikastetxeak, ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkarlanean lanean ari dira.

Tel.: 94 455 50 19

GARAIOLTZA ALONIA, 101 (BARRIO)
1. planta (Barrion)

"Lehen baino kalitate handiag

Derioko Ostalaritza Elkartea

Derioko Ostalaritza Elkartea orain dela hiru urte sortu zen, hango hiru tabernak eta Udalak bultzaturik. Gaur egun, 36 kide daude elkartean; tabernak, jatetxeak eta pubak, tartean. Maria José Eduardo elkartearen presidenteak eta Santos Nuñez presidente ohiak eman digute sektorearen egoeraren berri.

t/a: Itxaso Marina

Zertarako sortu da elkartea?

Gure helburu nagusia herriko ostalaritza dinamizatzea da. Lehen, ez zegoen inongo loturarik gure artean, eta, gaur egun, ostalaritza-establezimenduen %97 gara elkarteko kide. Elkarteari esker, ideiak trukatzeko ditugu elkarrekin, eta aukera izaten dugu arazoei edo geure jarduerari dagozkion erabakiei era koherenteago batean heltzeko. Gainera, erantzuna ematen diegu elkartekideen zalantzei, eta parte hartzen dugu gudan eragina duten udal arauen onarpenetan.

Ostalaritza sektorea sasoi onean dago herrian?

Mugimendu handia dago; beste herrietan baino askoz handiagoa. Bertoakoak ez ezik alboko herrietakoak ere etortzen dira gure establezimenduetara, zerbait edatera, pintxoren bat jatera... Gainera, Deriok Teknologia Parkea eta industrialdeak ditu hurbil, eta hango langile asko gurera etortzen dira bazkaltzera edo kafe bat hartzera. Asteburu gauetan ere mugimendua izaten da herrian. Txokoan afaldu ostean, koparen bat hartzera iriten dira asko.

Krisia bereziki nabaritutako duzue, ezta?

Bai. Gurea aisialdiari lotutako sektorea



da eta, jendeak gastuak murriztu behar baditu, sektore honetan murrizten ditu. Hala ere, ez dio irteteari uko nahi izaten, eta, lehen hiru garagardo edaten bazituen, hiru zurito hartzen ditu orain.

Zeintzuk abantaila ditu elkartekideak izateak?

Guztion artean indar handiagoa du-

gu, Udalarekin arazoak konpontzeko edo dirulaguntzak lortzeko. Horrezaz gainera, kideek informazio zabalagoa dute udal arauari buruz, elkartetik ematen zaielako haien berri. Eta kideren batek Udalarekin edo auzokideekin arazorik izanez gero, bitartekari lana egiten dugu. Auzokideekin ondo konpontzea ezinbestekoa da eta



oa eskaintzen diegu bezeroei"

horretarako argi eduki behar dugu udal arauak bete egin behar direla.

Oso zorrotza da udal arautegia?

Alboko herrietakoen antzekoa da. Udalarekin eta alkatearekin dugun harremana bikaina da. Era egokian konponduko ditugu beti geure arteko arazoak. Eta sektoreari dagozkion arau berriak egin direnean, geuk ere hartu dugu parte prozesuan.

Zer eskaintzen diezue bezeroei?

Lehen baino askoz kalitate eta barietate handiagoa. Ostalaritza lokalak arautara egokitzen joan dira eta modernizatu egin dira. Gaur egun, guztiek dituzte elbarrientzako komuna, larrialdietako atea, su-itxalgailuak, soinu-intsonorizazioa... Horrek guztiak eragina izaten du bezeroengan zein auzokideengan.

Eta gastronomia eskaintzari dago-kionez?

Kalitate eta barietate handia duten jatetxeak eta pintxo tabernak ditugu.

*"Krisia egonda ere,
jendeak ez dio irteteari
uko nahi izaten: hiru
garagardo barik,
hiru zurito edaten
ditu orain"*

*"Auzokideekin ondo
konpontzea ezinbestekoa
da eta horretarako
argi eduki behar dugu
udal arauak bete
egin behar direla"*

Bezeroek aukera zabala dute gurean: eguneko menua edo plater konbinatuak jatea, pintxotan ibiltzea edo janaria etxera eramatea, banaka batzuk aipatzearren.

Herriko ostalaritza dinamizatzea helburu duzuela aipatu duzue lehen, nola?

Soinez soin gabiltza lanean herriko dendariekin, eta iaz Merkataritza eta Ostalaritza Gida atera genuen batera. Horren bidez, herriak eskaintzen dituen zerbitzuak eman nahi izan ditugu ezagutzera, eta bezero berriak egin. Era berean, bidaia eta elikagai sortak zozketatu ditugu. Martxoan, olio eta txakolin dastatzea egin genuen "Derio Dastatu" kanpainaren barruan, eta laster ardo dastatzea eta pintxo lehiaketa antolatzeke asmoa dugu. Jardueron helburua da giroa sortzea eta jendea tragoren bat hartzea animatzea. Beste alde batetik, aparkalekurik eza arazo handia da Derion, eta horri zelan egin aurre aztertzen gabiltza.



GONDOKORO KULTUR ETXEA
Gondokoro Kalea, 1 (Leizorako auzoa)
Telefonoa: 94.453.04.13

ANTZERKIA
Martxoaren 14.az, 17.00etan

"TITANEN BARRUA"
Leizorako Auzoa / Leizorako Auzoa
(Leizorako Auzoa / Leizorako Auzoa)


12 urte + 3 €
+ 1 € 12 urte + 3 €

ZINEA
Martxoaren 14.az, 19.00etan



"TITANEN BARRUA"
12 urte + 3 €
+ 1 € 12 urte + 3 €

Titaneen Barrua filmaren inguruko informazioa
Leizorako Auzoaren inguruko informazioa
Leizorako Auzoaren inguruko informazioa



"TITANEN BARRUA"
Titaneen Barrua
(Leizorako Auzoaren inguruko informazioa)

12 urte + 3 €



"TITANEN BARRUA"
Titaneen Barrua
(Leizorako Auzoaren inguruko informazioa)

12 urte + 3 €

BFA IFK

GONDOKORO KULTUR ETXEA

Leizorako Auzoaren inguruko informazioa

Leizorako Auzoaren inguruko informazioa

"Prebentzioa ezinbestekoa da"

Emakume gehienok lotsa diogu ginekologoarenera joateari...

Medikuarengana joateak beldur apur bat ematen du beti, eta ginekologoarenean, gainera, biluztu behar zara. Antzineko kultura-tabuek indarrean jarraitzen dute gaur egun, eta oraindik kostatzen zaigu gure gorputza normaltasunez ikustea. Hala ere, esan behar da emakumeok hasi garela azterketa ginekologikoak oso beharrezkoak direla barneratzen, eta lotsa edo beldur hori gero eta txikiagoa dela.

Zein adinetan hasi behar gara ginekologoarenera joaten?

Galdera hau zitologia egiteko momentuarekin lotuta dago batez ere. Zitologiak utero-lepoko minbizia prebenitzeko egiten dira. Aspaldian egindako ikerketaren arabera, utero-lepoko minbizia sexu-harremaren bidez sor daiteke. Beraz, neska gazteak sexu-harremanak izaten hasi bezain laster joan beharko lirateke ginekologoarenera edo emaginarengana.

Zerk sortzen du utero-lepoko minbizia? Ohikoa da gure gizartean?

Sexu-harremanen bitartez giza papiloma birusa kutsa daiteke, eta horrek eragin zuzena du utero-lepoko zeluletan: aldatu egiten ditu. Zelula horietan aldaketaren bat egon dela garaiz ikusten bada, minbiziari aurrea hartzeko aukera dugu. Horregatik da oso inportantea zitologiak egitea. Minbizi mota hau ez da oso ohikoa gure gizartean, batez ere alde zurretik, zitologiaren bitartez, prebenitzen delako. Gaixotasun honen kontrako txertoa badago eta orain dela bi urte hasi zen eskoletan hamabi urteko neskatilei jartzen. Horri esker, gaixotasuna ia desagerraraztea lortuko da; lehenengo munduan, behintzat.

Ezinbestekoa da nork bere gorputza ezagutzea, ezta?

Inportantea da emakumea hilekoari

ARANTZA AMONDARIAN | ginekologoa

Arantza Amondarain ginekologoa da Osakidetzan, eta Txorierri eta inguruko pazienteak ere hartzen ditu Derion duen kontsultan. Berarekin izan gara solasean emakumeen kontuei buruz.



adi egotea: aldaketarik nabaritu duen, odol asko edo gutxi galtzen duen... Emakume askok, adibidez, odol asko galtzen dute hilekoan zehar, baina ez diote garrantzirik ematen. Eta analisiak egin ostean, oso anemia handia dutela ikusten dugu. Era berean, ezinbestekoa da hilekoaren ondoren titiak ondo miaztea, beldur barik. Eta zerbait arraroa nabaritzen bada, medikuari galdetu.

Izan ere, bularreko minbizia ohikoa da emakumeon artean.

Bai. Baina gaur egun, zorionez, gaixoen ia %90ek lortzen du hura gainditzea. Prebentzioa ezinbestekoa da eta mamografiak helburu hori dute, hain zuzen ere. Osakidetzan 50 urtetik aurrera egiten dira mamografiak, baina adina 45 urtera jaitsiko da laster.

Minbizi-kasuak gero eta ohikoagoak dira, zergatik?

Bularreko minbiziari lotutako faktoreak ondo ezagutzen dira: emakumeok gero eta beranduago ditugu seme-alabak, seme-

prebentzioa

Prebentzioa da gure gorputza ezagutzea, gure osasuna zaintzea eta gure bizitza hobetzea.

- 1. Gure gorputza ezagutzea
- 2. Gure osasuna zaintzea
- 3. Gure bizitza hobetzea

TXORIERRI

ginekologoa

Arantza Amondarain

Osakidetza

94 453 25 15

Goiri'78 s.l.

Prebentzioa

Osakidetza

94 453 25 15

94 453 25 15

alaba gutxi ditugu eta gure dieta oso koi-petsua da, Kutsadura arazoak ere hor daude batzuk aipatzearren.

Zeintzuk dira arazo ginekologikorik arruntenak?

Infekzio arruntak, hilekoaren aldaketak, bularreko arazoak... Ginekologok abantaila dugu, osasunean modu integralean jardun ahal dugulako. Hau da, emakumeak gugana etortzen dira arazo ginekologikoak prebenitzeko, baina horiek ez ezik bestelako osasun-arazoak ere prebenitzeko aukera dugu, pazienteari hainbat galdera egiten baitzaio bere ohiturei, elikadurari, lanari, sexualitateari, egoera psikologikoari... buruz.


Ohitura txarren artean erretzea dago. Zelako kalteak sortzen ditu ginekologia mailan?

Erretzeak gorputz osoari egiten dio kalte: larruari, birikei, bihotzari, zainei, eta abar. Gure arloan zehazki, menopausia aurreratu egiten du. Hilekoa dugun bitartean estrogenoak ekoitzen ditugu, eta estrogenoek arazo kardiobaskularretatik babes-

ten gaituzte. Menopausiarekin gal-tzen dugu babesle hori eta arrisku handiagoa dugu bihotzekoa, tronbosiak... izateko. Beldur handia diogu minbiziari, baina, egia esan, emakumeon artean hilkortasun-tasa handiena sortzen dutenak arazo kardio-baskularrak dira. Menopausiarekin batera osteoporosia ere agertzen da. Erretzeak hezurrek kaltzioa azkarrago galtzea eragiten du.

Lehen aipatu duzu emakumeok gero eta beranduago ditugula seme-alabak. Zelako ondorioak dakartza horrek?

Aldirik emankorrena emakumeak 20 urtetik 30 urtera arteko tartean dagoenean izaten da. Baina, gaur egun, umeak askoz beranduago izatea erabakitzen dugu, eta horrek arazoak dakartza, gu gazte sentitu arren, obarioak ez direlako gazteak. Tratamenduak hartzeko beharra dago, eta horiekin batera, haurdunaldi anizkuna izateko arriskua, besteak beste. Badakit ez dela erraza, baina gizarteak hausnarketa egin beharko luke horren gainean.



"Ginekologok osasunean modu integralean jarduteko aukera dugu"


"Inportantea da hilekoari adi egotea, eta, horren ondoren, titiak miatzea. Zerbait arraro nabaritzen bada, medikuari galdetu behar zaio, beldur barik"

Arduraz

Koitoaren osteko pilula errezeta barik eros daiteke farmazietan joan den urteko irailetik hona. Gobernuak erabakiak eztabaida sortu zuen kalean. Arantzaren iritziz, albiste ona izan da. "Kezka bakarra da pilula zelan erabiliko dugun: arduraz edo ez. Izan ere, askok beste antisorgailuen ordez -kondoiaren ordez, adibidez- erabil lezaketek. Eta kontuan hartu behar dugu pilula horrek haurdunaldia saihesten duela, baina ez gaituela sexu bidezko eritasunetatik babesten, eta hau oso inportantea da".

Sexua arduraz egin behar dugu eta babes-neurriak hartzea ezinbestekoa da. "Informazio nahikoa dago antisorgailu eta sexuaren bidez kutsatzen diren gaixotasunei buruz. Baina, nire ustez, emakume batzuek beldurra diote bikoteari kondoa jartzeko esateari, gizonak eskaera konfiantza faltatzen har dezaketelakoan". Nolanahi ere, kondoa antisorgailurik onena ez ezik babeslerik egokiena ere bada sexu-harremanak dituzten gazteentzat edo noizbehinkako bikoteak dituztenentzat. Antisorgailuei dagokienez, aukera zabala dago merkatuan: pilulak, eraztunak, partxeak, DIU desberdinak... eta "guztiak dira fidagarriak eta seguruak. Emakumeak bata edo bestea aukeratuko du bere historial kliniko eta beharrezanaren arabera".





Interneten arriskuak, adingabekoentzat

Internet tresna berria da helduontzat. Denboraren poderioz, ohitura hartu eta ikasi dugu sarea erabiltzen. Umeek, ordea, ohiko kideztat dute. Onura handia ekarri ahal du Internetek, baita arriskuak ere. Eta hori guztia aztertu dute 2010eko Internet Seguruaren Nazioarteko Egunean. Internet Seguru baten aldeko Europako Sareak antolatutako ekimena otsailaren 9an egin zen. Aurten adingabekoentzat Interneten desegokiak diren eduki zein irudien zabaltzearen prebentzioa izan dute mintzagai.

Horren haritik, "Umeen segurtasuna eta adingabekoen ohiturak Interneten" ikerketa eman da ezagutzera. Txostenaren egile izan dira Umeen Pornografiaren Aurkako Ekintza Gobernu Kanpoko

Elkartea eta Babestu Itzazu erakundea. Txostena egiteko, Internet maiz erabiltzen duten 10 urtetik 17 urtera bitarteko 4.000 neska eta mutili galdetu diete Estatuan. Gazteen %54k erantzun du ez duela inolako informaziorik jaso oinarritzko segurtasun arauetaz buruz. Horrela, %30ek bere telefono zenbakia eman du Interneten, eta %16k bere etxeko helbidea.

Gainera, ikerketaren emaitzen arabera, inkestatutakoen %28 webgune pornografikoetan sartzen da; %38, indarke-riazko edukiak dituzten webguneetan; eta %16, eduki arrazista edo xenofobia duten webguneetan. Era berean, Internet sarritan erabiltzen duten adingabekoen %44k sexu-jazarpenera sentitu du noizbait; eta %11k irainak edo probokazioak jasan

ditu beste internautengandik. Hala ere, %1,5ek baino ez du esan beldurra sentitu duela noizbait.

Ikerketan aholku batzuk luzatu zaizkie gurasoei. Esate baterako, seme-alabekin Interneten era seguruan nabigatzeko garrantziari buruz hitz egin; gartzetxoekin jakinarazi ezin dietela daturik eman gizarte-sareetan ezagutu dituzten pertsonei, edo mezu beldurgarriei erantzun; ordenagailuaren erabilera-arauak umeekin adostu; nabigazio seguruko programak instalatu eta pasahitz zailak ezarri; web-kamarak ez jarri; eraso edo proposamen desegokiko susmo txikiaren aurrean, gurasoei esan ...

Helduei ez ezik, adingabekoei zuzendutako gomendioak ere ohartarazi dituzte txostenean. Adibidez, 'spama' ez hartu kontuan; norberaren edo familiaren datuak ez eman; ezezagunetaz ez bidali argazkiak; chat guneetan webkamerarik ez erabili; gizarte sareetako ezezagunak laguntzat ez onartu; eta ezezagunekin zitarik ez hitzartu.



Kateatik Otatzara da Txorierri

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on Txori!
–Halan ekarri Luki. Zelan gara?
–Poz-pozik neskato!
–Zelan, ba, mutil?
–Energia eta adorea dakardaz gaur.
–Cola-caio armozau dok ala?
–Ezta! Andreak emon jaustana mo-
sua. Txorierri bera be beste begi batzukaz
ikusten jonat.

–Handia dok, ba, Luki!
–Beitu, Txori, KATEAko kateari tira
egin eta Larrabetzuko Otatzara baserriko
akarra lotu ezker, ipini dona Txorierriren
hasierera eta amaierera.

–**Ia**, Luki, Katean hasten dala dinok?
Baie, KATEA **Erandio** dok-eta!

–Egia biribila Txori! Ba, Katea amai-
tzen dan puntutik hasirik da Txorierri,
orduan.

–Argitu egik, behingoz, Luki Txorierri
non hasten dan!

–Hara! Hartu egin autoa Txori Eran-
dioko Landan; atoa Asua topauko dona
bide hegaleko kartelean; Erandio gero;
Asua ostean; Sondika hurrengo kartelean,
jakina, Loiu ezkerrean lagata; Loiu
kartela Larrondon; segiduan Derio, eskui-
nean Zamudio dala, eta holan.

–Ondo Luki, baina, esate baterako,
zein baserritan hasten dok Zamudio Son-
dikatik Lezamarantz etorririk?

–Zamudio hasten dona **Ugeldune**
–Ugaldeguren hortik hartua dok- **Dítxine**
eta **Bástine** baserrietan, eta amaitu **Lu-
berta** – Lubarrieta-, Olotze eta Olamina-
gan. Halan dino Gabriel Zaldunak.

Gero, Lezama. Kurtzeko ermitan hasi
eta Bidegane baserriraino, Fernando Bolu-
kok dinoanez.

–Eta azkenik, Luki, Larrabetzu!

–Bai Txori! Sasiene baserria daukagu
eskuinean, hor hasten da herria, ibili

aurrera eta uria –ze,

Txori, Larrabetzu
herria zuringoa

dona eta uria gorri-
goa-, ba, uri hori

abadearen etxean

hasten dona, edo

Errebale 22an. Halan

dino bizar eta guzti

ederto baten Juan

Albertok.

–**Deskantzeik** Luki,

ondo kostau jak Otatzako

akarra KATEAko

kateagaz kateatu-
tea!

–Bihar

argiago ibilteko,

andreari mosu

bat ez dala

nahiko eta bi eskatuko

deutsadaz Txori.

(*) Ahozko moduan
esaten dana, letra
baltzez doa



 **aisia** PROFO
Baserri menua
1. txorierriko txori, 2. txorierriko txori, 3. txorierriko txori, 4. txorierriko txori, 5. txorierriko txori, 6. txorierriko txori, 7. txorierriko txori, 8. txorierriko txori, 9. txorierriko txori, 10. txorierriko txori
29 €
guztira 29 €
(baita 29 € berriz)



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Nortzuek lortu
dute urrezko
domina bana?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:
Bost urtetik gora umeentzat
Irabazlea: Idoia Uribarri

Etxeko sukaldaritza

Makailao-zopa

*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak (lau lagunentzat):**

- 400 g makailao papurtua
- Piper berde bat (txikitua)
- 200 g tomate birrindu
- Kipula bat
- Sei berakatz-atal
- 100 g bezperako ogi (txikitua)
- Bost arrautza
- Oliba-orioa, gatza eta ura

Presteteko area:

Makailaoa 24 orduan izango dogu

beratzen. Ura birritan aldatuko deusagu eta erabilitako azkena gorde egingo dogu. Kazuela baten orio-zurrusta bota eta kipula, berakatzak eta piperra bertan erregosiko doguz su ezitan. Tomatea gehitu eta hamar minutu inguruan izango dogu surtan. Ogia botako dogu eta 2-3 minutuan egosten itxiko dogu, eragiten dogun bitartean. Makailaoa beratzen jarri dogun azken ura botako dogu; gitxi bada, apur bat gehiago botako dogu. Beste hamar minutuan izango dogu irakiten. Arrautza bat irabiau eta zopari botako deusagu. Makailaoa eta beste lau arrautza (osorik) gehitu eta kazuelari tapa jarriko deusagu. Bost minutuan izango dogu egozten.



Haragi pastela

Osagaiak:

- 4 patata handi
- Esnea
- Txanpinoiak
- 400 g haragi
- 800 g espinaka
- Oliba-orioa, kipula, baratxuria, perrexila eta gatza
- Etxeko tomate prijidua



Presteteko area:

Espinakak samur egon arte egosiko doguz. Xukatuko doguz. Txanpinoiak xerra mehetan ebagi eta baratxuri-atal bigaz sueztituko doguz. Gatza, perrexila eta espinakak ganeratu doguz. Gordeko dogu.

Patatak egosi eta purea prestauko dogu. Horretarako, esnea, gatza eta oliba-orioa erabiliko doguz. Gordeko dogu.

Kipula txikitu eta zartaginean erregosiko dogu. Bigun dagoanean, haragi, gatza eta perrexil txikitua gehituko doguz. Eginda dagoanean, tomate prijidua botako deusagu.

Labarako erretilu baten, espinakak eta txanpinoiak jarriko doguz. Horreen ganean, patata-purea eta azkenean, haragia tomateagaz. Gura izanez gero, gainerre daiteke.

Iturria: www.elikalte.org

Ercoreca
supermerkatuak

Flikadura adituak



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

Brunetti detektibeak auzi berria du argitzeko: trabesti bat hilda agertu da, aurpegia desitxuratuta duela. Bere ohiko trebeziaz, laster jakingo du trabestia Veneziako hiritar ospetsu bat dela. Egoera horretara zerk eta nork eraman duen izango du argitze-ko.

LITERATURA: HAUR ETA GAZTEAK

–Mari Teiletakoren laku magikoa. X.

–*Garazi Gerezi*. L. Bilbao

MUSIKA

–*Legegabeen kondaira*. Deidra

–Hesiaren beste aldean. Norte Apache

Sudokua

			3		7	2	9	
2	3		8	4				
9		1	2				8	7
								3
		2	6				4	
	7	5		2	1		6	9
4			5		8	6		2
6	5	3						

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
41	42	43	44	45	46	47	48	49	50
51	52	53	54	55	56	57	58	59	60
61	62	63	64	65	66	67	68	69	70
71	72	73	74	75	76	77	78	79	80
81	82	83	84	85	86	87	88	89	90
91	92	93	94	95	96	97	98	99	100

LOTTERIA IZZAMA

PREMI:
 100.000.000.000
 10.000.000.000
 1.000.000.000

**CONCORSO DI GIOCHI A
 STRUTTURA FISSA**

**REDAZIONE, DIREZIONE,
 PUBBLICITÀ: IZZAMA**

LOTTERIA DI GIOCHI A STRUTTURA FISSA - LOTTERIA IZZAMA S.p.A.

[illegible]

On egin

Martxoaren 10an, osteguna, martxoaren 11n, ostiratsua eta martxoaren 12an, larazkena, On egin egunak dira.

Berrikuntza berria! Berritu gure menua!

Azkeneko txuleta 9,90 €tik 6,90 €tik. Txuleta berriz 7,90 €tik 6,90 €tik. Txuleta berriz 7,90 €tik 6,90 €tik.

94 455 63 94

Antzerkia eta filmak

Derio

- > Antzerkiaren Nazioarteko Eguna. Martxoaren 26an, 20:30ean, Gurea Aretoa.

Zamudio

- > Umore-emanaldia, Ikerne Goikoetxearen eskutik. Martxoaren 31an, 18:00etan, Zamudiotorren.
- > *Xabinaitor*. Martxoaren 23an, 20:00etan, Arriaga antzokian. Izena emateko epea: martxoaren 19ra arte, udaletxean.

Erakusketak

Sondika

- > Emakumea eta kirola. Martxoan, erakusketa gelan.

Zamudio

- > Argazki erakusketa. Martxoaren 18ra arte, Zamudiotorren.

Larrabetzu

- > "Mirando al mar". Martxoaren 1etik 18ra, Anguleri kultura etxeko beheko aretoa.

Ikastaroak

Sondika

- > Udal ikastaroak. Izena emateko epea: martxoaren 5era arte, 94 453 51 71.

Zamudio

- > Udal ikastaroak. Izena emateko epea: martxoaren 24ra arte, udaletxean eta KZgunean.



Txakolinaren Eguna

Larrabetzu. Martxoaren 28an, 10:00etatik 15:00etara.

Larrabetzu

- > Sendabelarrak eta prestakinak. Izena emateko epea: martxoaren 22tik 26ra, Anguleri kultura etxean.

Irteerak

Sondika

- > Burgoa mendira. Martxoaren 28an, 09:15ean, Goronda Gane ikastetxeko aparkalekuan. Izena ematea: martxoaren 25era arte, liburutegian. Gurasoen elkartearen eskutik.

Derio

- > Port-Aventurara. Izena emateko epea: martxoaren 1etik 9ra arte, etxebizitza eta informazio bulegoan.

Zamudio

- > Benidormera. Izena emateko epea: martxoaren 1etik 18ra, udaletxean.

- > Urnieta (Leiza-Urepel-Arano). Martxoaren 14an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Cabo Villanora. Martxoaren 14an, Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Burbonara (Altube). Zorribike txirrindularitza taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Getxoko Fadura kiroldegiko frontoira, martxoaren 14an. Izena emateko epea: martxoaren 1etik 10era arte, Anguleri kultura etxean.

Kirola

Derio

- > Plater-tiroko saioa. Martxoaren 19an, 10:00etan, Teknologia Parkean. Txorierrri Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua.

Lezama

- > Nagusien V. Eskupilota Txapelketa. Izena ematea: martxoaren 6ra arte, kiroldegian.

Bestelakoak

Derio


- > Tokiko Agenda 21. Martxoaren 24an, 19:30ean, Larrabari baserrian.

Zamudio

- > Udaberriko bazkaria. Martxoaren 25ean eta 26an, Adintsuen Elkartearen.

Lezama

- > Zuhaitz Eguna. Martxoaren 14an, 11:00etatik aurrera.



**Qure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...malla handiko teknologiarekin.

ITP Taldean atxiegia handia egiten dugu. Berkeba alorretan hegazkin-motor
magetromaguetatik, olatu-energiaren CO₂ gutxiago erabilerako teknologia
erabiltzeko, teknologia berriak garatzea eta erabiltzea, eta beraz, ingurumena
kontzientzia hartzearen bidez, ITP Taldeak, ingurumenaren alorrean, Taldean
Integratua jaxo duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.
Ingurumenaren erantzukizunari erantzuteko, beraz, bostak gure enpresa
helburua hartzen ari gara.




astikencet@quojardinaastikencet.com
www.quojardinaastikencet.com

HONDA



Glossing Ferronil



agrojardin
Astikene

Nekazaritza eta lorezaintzarako tresneria saldu eta konpontzen dugu

BELARRA MÓZTEKŐ MÁKINA AUTOMATIKOA

Introduction & scope

Leakstalditak oalten dituau

Знаменитые люди



Sekoulako
nabedades

Debit:
Kontokorrentkonto

